

## **2015EKO UDARAKO NHAG ANTOLATUTAKO INGELERAZKO PROGRAMAK**

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAK DIRU-LAGUNTZA EMANDAKO PROGRAMA DENEZ PLAZAK MUGATUKO DIRA ETA ESKAERAK ESKAINITAKO PLAZA BAINO GEHIAGO BADIRA ESLEIPENA ZOZKETA BIDEZ EGINGO DA.

NHAG-Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Guneak 2.652 plaza eskaintzen ditu uda honetan Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzendutako ingeles-kanpamentuetan: 900 barnetegi moduan, astebeteko egonaldiak Irunberrin, eta 1.752, astebeteko goizetan Iruñean, Tuteran, Tafallan, Lizarran, Zangotzan, Corella-n, Lekaroz, Azkoien, Altsasu eta San Adriáen.

**Izen-emate epea irekita dago datorren ekainaren 3ra arte.** Eskakerak [www.cnai.es](http://www.cnai.es) webgunean egin behar dira bai barnetegi-ikastaroetarako bai Iruñean eta gainerako herrietan eguneko ikastaroetarako.

Barnetegi kanpaldiak zentro nafarretan matrikulatuta dauden LH 6. eta DBH eta 1., 2. eta 3. ikasleei zuzenduta daude. Hamar astetan zehar garatuko dira, ekaina, uztaila eta abuztua bitartean, Irunberriko "Sierra de Leyre" Bigarren Hezkuntzako Institutuaren egoitzan zazpi eguneko egonaldiak (igandetik larunbata arte). Matrikula arruntak 230 euro balio du (207 euro kategoria orokorreko familia ugariarentzat eta 184 kategoria bereziko familia ugariarentzat) ikastaroa, ostatu eta mantenua barne. Lekuraino iristea familien kontu izango da.

Eguneko ikastaroak LH 1., 2., 3. eta 4. ikasleei zuzenduta daude. Iruñean bost eguneko (astelehenetik ostiralera) zortzi txanda egingo dira ekainean, uztailan eta abuztuan eta txanda bana gainontzeko herrietan: Tuteran (ekainaren 29tik uztailaren 3ra arte), Tafalla (uztailaren 6tik 10ra arte), San Adrian (uztailaren 13tik 17ra arte), Zangotza (uztailaren 20tik 24ra arte), Azkoien (uztailaren 27tik 31ra arte), Lekaroz (abuztuaren 3tik 7ra arte), Lizarra (abuztuaren 10tik 14arte), Altsasu (abuztuaren 17tik 21era arte) eta Corella (abuztuaren 24tik 28raarte).

Kasu honetan matrikula arruntak 85 euro balio du, 77 euro kategoria orokorreko familia ugariarentzat eta 68 kategoria bereziko familia ugariarentzat. Ordutegia goizeko 9:00etan hasiko da eta eguerdiko 14:30etan amaituko da.